Aurrekoa gorabehera, kontuan izan behar da zerbitzu ezberdinak egitean ukitzen diren zonetan, lehen definituetatik horretatik kanpo daudenak, egin beharreko zoladuraren azalera honelakoa izan behar dela:

Con independencia de lo anterior se deberá tener en cuenta que en las zonas afectadas por la ejecución de los diferentes servicios y situadas fuera de las definidas con anterioridad el pavimento a ejecutar se ajustará a las siguientes indicaciones:

 Espaloian, egikaritze-azalerak zangak egiterakoan ukituko den eremu osoa hartu beharko du, dagoen zoladurarekiko mozketak zintarriarekin perpendikular izateko moduan.

 En la acera la superficie a ejecutar deberá incluir a toda la zona afectada por la ejecución de las zanjas y de forma que los cortes con el pavimento existente sean perpendiculares al bordillo.

 Galtzadan, zangaren luzera ukitutako erreiaren zabalera osoarekin zolatuko da, eta dagoen zoladurarekin egiten diren mozketak galtzadaren ardatzaren perpendikular izateko moduan.

 En calzada se pavimentará la longitud de la zanja con la anchura total del carril afectado y de modo que los cortes con el pavimento existente sean perpendiculares al eje de la calzada.

 Ukitutako edo egin beharreko seinale horizontalak osagai bikoitzekoak izango dira.

 La señalización horizontal afectada o a realizar será de doble componente.

Ibilgailuen sarbideari dagokionez:

En lo que afecta al acceso de vehículos:

- Garajera sarbide bakarra egongo da, eta horren kokapena plano batean definitu beharko da.

- Solo habrá un acceso a garaje, cuya ubicación deberá definirse en un plano.

- Ibilgailuen sarbidea granitozko zintarriarekin egin beharko da, 15 x 20 neurrikoa, orain dagoenaren ezaugarri berdinekin, eta udal teknikariekin egindako zuinketari jarraituz.

- El acceso de vehículos, deberá ejecutarse con bordillo de granito de 15x20 de las mismas características que el existente, conforme al replanteo que en su día se haga con los técnicos municipales.

Horrez gain, honako hau esan behar da:

Señalándose además que:

Zolatu beharreko azaleran zangak egitean kaltetzen den zona osoa eta dagoen zoruan sor litezkeen balizko kalteak sartu beharko dira, irizpide orokor hauen arabera:

La superficie a pavimentar deberá incluir a toda la zona afectada por la ejecución de las zanjas y posibles daños causados al pavimento existente de acuerdo con los siguientes criterios generales:

ZANGA GALTZADAN

ZANJA EN CALZADA

Galtzadan zangen goiko errematea 5 cm-koa izango da, berotako aglomeratu asfaltikokoa, AC11 surf 50/70 D motakoa idorki ofitikoarekin, eta 25 cm hormigoi HNE-20/B/20 motakoa, zagor artifizialezko betelanaren gainean. Galtzadako bidezorua (goiko hormigoia zein aglomeratua) birjarri egingo da, zangaren zabalera baino gutxienez 40 cm zabalago izateko moduan (20 cm alde bakoitzean). Galtzadako gurutzeen kasuan, errodadura zorua birjartzerakoan, dagoen zoruarekiko mozketak perpendikularrak izango dira zintarriarekin. Jarduketa kaleen arteko gurutzean gertatzen bada, aglomeratua gurutzearen azalera osoan birjarriko da. Aparkalekuari edo zirkulazio erreiari eragiten badio, errodadura zorua beraien zabalera osoan birjarriko da, mozketak zintarriarekin perpendikularrak izateko moduan. Mozketa guztiak ebakitzaile mekanikoz egingo dira, eta zolatu ondoren zigilatu egingo dira. Errodadura geruza oinarrizko hormigoia isuri ondoko 10 egunetan birjarriko da; ondoren, ukitutako seinale horizontalak birjarriko dira, osagai bikoitzeko pinturarekin.

El remate superior de las zanjas en calzada será, de 5 cm. de aglomerado asfáltico en caliente tipo AC 11 surf 50/70 D con árido ofítico, y 25 cms de hormigón HNE-20/B/20, sobre relleno de zahorra artificial. El firme de la calzada (tanto el hormigón superior como el aglomerado) se repondrá en una anchura al menos 40 cms mayor (20 cms a cada lado) que la anchura de la zanja. En el caso de cruces de calzada, la reposición del pavimento de rodadura se ejecutará de forma que los cortes con el pavimento existente serán perpendiculares al bordillo. En el caso de realizar la actuación en una zona de intersección de calles, el aglomerado se repondrá en la superficie total del cruce. En el caso de afectar al aparcamiento o carril de circulación la reposición del pavimento de rodadura se realizará a toda la anchura de los mismos y de modo que los cortes sean perpendiculares con el bordillo. Todos los recortes serán realizados con cortadora mecánica, procediendo a su correspondiente sellado una vez pavimentado. La reposición de la capa de rodadura se efectuará dentro de los 10 días siguientes al vertido del hormigón de base y seguidamente se repondrá la señalización horizontal afectada con pintura de doble componente.

ZANGA ESPALOIAN EDOTA OINEZKOENTZAKO ZONAN

ZANJA EN ACERA Y/O ZONA PEATONAL

Espaloietako goiko errematea baldosa hidraulikozkoa izango da eta, gutxienez, HNE-20/B/20 hormigoizko 10 cm izango ditu. Espaloiko pasabideetan hormigoiaren lodiera 20 zentimetrokoa izango da. Oinezkoentzako zonetan, akabera ez bada baldosazkoa, dagoen akaberaren berdina jarriko da. Lanak hasi aurretik eduki behar dira akabera berria egiteko materialak. Gainera, bide zoruen sortaren birjarpena gutxienez 20 cm handiagoa izango da egin beharreko zangaren alde bakoitzetik, eta baldosa osorik egongo da, mozketarik gabe; lanak egitean kaltetzen diren guztiak ordezkatu beharko dira. Oinezkoentzako zonen akaberarako materialak orain bertan dagoen materialaren ezaugarri berak izan behar ditu, zona horretan kalte estetikorik ez egiteko eta material horren osotasun estrukturala bermatzeko. Bidea mantentzeko eta garbitzeko ibilgailuen zirkulazioari eusteko modukoa izan behar da.

El remate superior en aceras, será de baldosa hidráulica y, como mínimo, 10 cms de hormigón HNE-20/B/20. En los vados de acera el espesor de hormigón será de 20 cms. En las zonas peatonales, en las que el acabado existente no sea con baldosa, este se realizará con el mismo acabado al existente, disponiendo de los materiales necesarios para dicha reposición previo al inicio de los trabajos. Además la reposición del paquete de firmes será al menos 20 cms mayor por cada lado de la zanja a realizar y a baldosa completa sin cortes, reponiendo todas aquellas que pudieran verse afectadas por la ejecución de los trabajos. El material de acabado de zonas peatonales será de idénticas características al existente en la zona de cara a evitar posibles daños estéticos, así como asegurar la integridad estructural del mismo material capaz de soportar el tráfico de los vehículos de mantenimiento y limpieza viaria.

ARGIZTAPENA

ALUMBRADO.

Ez dago eragozpenik aurkeztutako oinarrizko proiektua onesteko, bertan konpromisoa hartu dela ageri baita, hain zuzen ere instalazioak egiteko “emandako udal txosten teknikoarekin bat etorriz eta udal araudi aplikagarria jarraituz”, eta hori “egikaritze proiektuan” jasoko da. Nolanahi ere, 2019ko martxoaren 7ko aurreko txostenaren edukia gogorarazi nahi da:

No existe inconveniente para la aprobación del Proyecto Básico presentado, dado el compromiso recogido en el mismo de ejecutar las instalaciones “según informe técnico municipal emitido y siguiendo la normativa aplicable municipal”, lo que se recogerá “en el Proyecto de Ejecución”. En todo caso, se recuerda el contenido del anterior informe de 7 de marzo de 2019:

Orain lurzatiaren aurrean eta inguruko zonetan dauden instalazioak (bide eta bizileku motako luminariak, altzairuzko zutabean jarriak, lurpeko linea elektriko baten bidez elikatuak) behar bezala gordeko dira, aipatutako

Se conservarán en correctas condiciones las instalaciones existentes en la actualidad en los frentes de la parcela y las zonas próximas (luminarias tipo residencial situadas sobre columnas de acero y alimentadas a través de línea

argi puntuak, kanalizazioak eta linea elektrikoak ez kaltetzeko moduan, eta etxebizitzen, lurzatien eta eraikinen sarbideak baldintza horiek betez. Halaber, Joaquín Arízaga kaleari dagokion lurzatiaren aurrealdean argiztapen sareetarako kanalizazioa egingo da, gertuen dauden udal sareekin lotu arte, puntu horietan kutxatilak eginez, baita beharrezkoak direnak ere, horietako biren arteko gehienezko distantzia 30 metro baino gutxiagokoa izan dadin.

eléctrica subterránea) de modo que no sean afectados por las obras los puntos de luz, canalizaciones ni líneas eléctricas, y situando los accesos a la(s) vivienda(s), parcela(s) y edificio(s) de acuerdo con estas premisas. Igualmente, se ejecutará canalización para redes de alumbrado en el frente de parcela correspondiente a la calle Joaquín Arízaga, hasta enlazar con las redes municipales más próximas, ejecutando arquetas en estos puntos, además de las necesarias para que la máxima distancia entre dos de ellas no supere los 30 metros.

Une oro instalazioetako osagai guztietara (kutxatilak, argi-puntuak, etab.) iristeko aukera eman behar da egin beharreko mantentze lanak egin ahal izateko, kontuan izanik balitekeela lan horiek bitarteko mekanikoak behar izatea.

Deberá facilitarse en todo momento el acceso a los elementos (arquetas, puntos de luz,…) de las instalaciones para realizar las labores de mantenimiento que requieran, considerando que estos trabajos pueden precisar medios mecánicos.

Instalazio horiek funtzionatzen jarraituko dute egiten diren berriak zerbitzutan jarri arte. Gero, beharrezkoa balitz, kontratistak ezeztatu, deskonektatu eta kendu egingo ditu, akatsik eta narriadurarik gabe, udalaren biltegietara eramango ditu eta beharrezko diren erremateak egingo ditu.

Estas instalaciones se conservarán en funcionamiento hasta la puesta en servicio de las nuevas ejecutadas, en su caso, procediéndose posteriormente por parte del contratista a su anulación, desconexión, desmontaje y traslado sin falta ni deterioro a los almacenes municipales y a la realización de los remates precisos.

Aurreikusitako jarduketen garapenak gaur egungo instalazioen segurtasuna eta funtzionamendua mantentzea galarazten badu edota beraiek aldatzea beharrezkoa bada, proiektuaren osotasunean txertatzeko, aurkeztutako dokumentazioan bestelako behin-behineko konponbide bat definituko da, horren eta proiektatu den azken instalazioaren ordez egiteko. Betiere instalazioen funtzionamendu eta segurtasun baldintzak bermatu behar dira, baita espazio publikoen

En caso de que el desarrollo de las actuaciones previstas imposibilite mantener la seguridad y el funcionamiento de las instalaciones actuales y/o precise su modificación para integrarlas en el conjunto del proyecto, se definirá en la documentación presentada una solución provisional alternativa a la misma y a la instalación final proyectada de modo que en todo momento queden garantizadas las condiciones de funcionamiento y de

argiztapen baldintzak ere. Enpresa sustatzailearen kontura izango da baldintza hori betetzeko behar diren jarduketak betetzea, arestian aipatutako instalazioaren elementuen kokalekua errespetatuz. Obrak hasi baino lehen, gaur egungo egoera zehazteko behar den dokumentazio zehatza bidaliko da. Horrenbestez, obrak egiten diren bitartean instalazioek pairatzen dituzten kalteak edo narriadurak obrei egotziko zaizkie.

seguridad de las instalaciones y las de iluminación de los espacios públicos, siendo por cuenta de la empresa promotora la realización de las actuaciones precisas para cumplir esta condición, respetando la ubicación de los elementos de la instalación citados anteriormente, y remitiendo previamente al comienzo de las obras la documentación gráfica precisa para determinar el estado y situación actual de los mismos. Se entiende que todo daño o deterioro sufrido por las instalaciones durante la ejecución de las obras será imputable a éstas.

Instalazioen diseinuak, zuinketak eta betearazpenak iraun bitartean, kontuan hartuko da kanalizazioak espazio libreetan zehar egin behar direla, zuhaitzen lerrokaduretatik urrun, sustraiek ez ditzaten kaltetu, eta espaloien kasuan, eraikuntzen fatxadetatik edo finken itxituretatik gertu. Argi puntuen kokalekua definitzeko, eraikuntzako edo urbanizazioko beste elementu batzuen existentzia kontuan izango da (zuhaitzak, altzariak, bideak etab), argiaren kalitatea bermatze aldera.

Durante el diseño, replanteo y la futura ejecución de las instalaciones se tendrá en cuenta que las canalizaciones deberán discurrir por espacios libres alejados de las alineaciones de árboles para evitar que sean afectadas por las raíces y, en el caso de aceras, próximas al cierre de las fincas o a las fachadas de las edificaciones. La situación de los puntos de luz se definirá considerando la existencia de otros elementos constructivos o de urbanización (arbolado, mobiliario, vialidad...) de modo que se garantice la calidad del alumbrado.

Azkenik, egin beharreko instalazioak agiri bidez definitu eta justifikatuko dira, ondo kontuan izanik erabiltzen diren materialek eta obraren egikaritzeak aplikatu beharreko araudia bete behar dutela, udalarena barne (baldintza plegua, eta Getxo udalerrian argiztapen publikoko instalazioei aplikatu beharreko xehetasun teknikoak).

Finalmente, se definirán y justificarán documentalmente las instalaciones a realizar, teniendo bien presente que tanto los materiales empleados como la ejecución de las obras deben cumplir la normativa aplicable, incluso la municipal (Pliego de Condiciones y Detalles Técnicos aplicables a instalaciones de alumbrado público en el municipio de Getxo).

Azaldutako baldintzak betetzea, bidezkoa bada, pleguetan, planoetan eta aurkeztu diren gainerako dokumentuetan (eranskina,

El cumplimiento de las condiciones expuestas quedará reflejado, en su caso, en los Pliegos, Planos y resto de documentos (Anexo, Proyecto de

urbanizazio proiektua edo baliokidea) azalduko da.

Okerreko interpretaziorik ez egiteko, informazioa besteren bidez oker ez jakinarazteko eta instalazioen zuinketa egiteko, sustatzaileak eta tentsio txikiko instalatzaile baimendunak (instalazioa gauzatu behar duena) zerbitzuaren ardura duten udal teknikariekin harremanetan jarri behar dute 944660180 telefono zenbakian.

LOREZAINTZA

Aurreikusitako obren eraginpean egongo diren edo landatuko diren zuhaitzei eta lorezaintzari dagokionez, aipatutako magnolia kimatzeaz gain, udalerriko zuhaitz ondare naturala zaindu beharko da; hortaz, obra fasean, aipatutako kaltetutako espeziekin izan dezakeen eraginari dagokionez, lanak udal zerbitzuekin koordinatuko dira intereseko zuhaitz espezieak birlandatzen saiatzeko edo udal zona mugakideetan edo lurzatietan berriz jartzeko, ondare natural aldagarria zaintze aldera.

Lurrak mugitu edota eraikuntzak eraitsi aurretik, ezinbestekoa da lizentziari dagokion aldean eta inguruetan arratoiak hiltzeko tratamendu intentsibo bat aplikatzea.

Arratoiak hiltzeko tratamendua gutxienez obrak hasi baino 15 egun lehenago egingo da. Bestalde, enpresa espezializatu batek egin beharko du, Izurriteen aurkako Zerbitzuen eta Establezimenduen Erregistro Ofizialean izena emanda duena.

Urbanización o equivalente) presentados.

Al objeto de evitar interpretaciones incorrectas y transmisiones erróneas de la información a través de terceras personas y para realizar el replanteo de las instalaciones, el promotor y el Instalador Autorizado en Baja Tensión que vaya a ejecutarlas deberán ponerse en contacto con los Técnicos Municipales responsables del Servicio en el teléfono 944660180.

JARDINERÍA.

En relación con la jardinería y arbolado de nueva ejecución o a afectar con las obras previstas, además de la poda del citado magnolio, deberá de conservar el patrimonio arbóreo natural del municipio, por lo que en fase de obra, en función de la afección que pueda tenerse con las especies afectadas citadas se coordinarán tareas con los servicios municipales para tratar de trasplantar las especies arbustivas de interés o su reposición en la parcela o en zonas municipales colindantes para preservar el equilibrio natural alterable.

Antes de efectuar un movimiento de tierras y/o derribo de edificaciones es requisito indispensable efectuar un tratamiento intensivo de desratización en el área afecta a la correspondiente licencia y sus inmediaciones.

El tratamiento de desratización será efectuado con una antelación mínima de 15 días al inicio de las obras y será efectuado por una empresa especializada que deberá estar inscrita en el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Plaguicidas.

Arratoiak hiltzeko tratamendu intentsiboa burutu ostean, enpresa jarduleak tratamenduari buruzko ziurtagiria egingo du eta honakoak azalduko dira: erabilitako produktuak, Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko plagiziden erregistroan inskribatuak, erabilitako bolumena eta aplikazio-zona zehatzak.

Tras la realización del tratamiento intensivo de desratización, la empresa actuante emitirá un Certificado de Tratamiento donde se indique el/los productos utilizados que deberán estar inscritos en el Registro de Plaguicidas de la Dirección General de Salud Pública, el volumen empleado y las zonas concretas de aplicación de los mismos.

Tratamenduaren ziurtagiria Ingurumen Arloari bidaliko zaio, eta kopia bat Azpiegitura eta Zerbitzu Arloari, obrak egin aurretik. Atal horri buruzko informazioa behar izanez gero, arlo honetan kontsulta daiteke, 94.466.01.91 / 94.466.01.80 telefono-zenbakietara deituz.

El Certificado de Tratamiento será remitido al Área de Medio Ambiente con copia al Área de Infraestructura y servicios con anterioridad a la ejecución de las obras. Cualquier información que se precise en relación con este apartado podrá consultarse en este Área igualmente a través del número de teléfono 94.466.01.91 / 94.466.01.80

HONDAKINAK ETA GARBIKETA

RESIDUOS Y LIMPIEZA.

Obrako ibilgailuak bide publikora irtetean, ez da bide publikoa zikinduko eta ez da segurtasun-arazorik sortuko zikinkeriagatik. Horregatik, gurpilak garbitzeko zona bat jarriko da, bide publikora irtetean ibilgailuek ez dezaten errepidea zikindu. Hondakinen zorrotenak edo eraispen-hondakinak pilatzeko zonak, hondakinak kudeatzeko puntuak eta abarrekoak baldin badaude, haien kokapenak ez du bide publikoa zikinduko eta ez du eraikuntza-hondakinik pilatuko, behar bezala mugatu gabe.

La salida a la vía pública de los vehículos de obra se ejecutará sin afectar en suciedad a la vía pública, sin generar suciedad ni problemas de seguridad derivado por ésta. Por eso, se instalará una zona de lavado de ruedas para que la salida a la vía pública se efectúe sin generar suciedad en la vía pública. En el caso de existencia de bajantes de escombros o zonas de acopio de restos de demolición, puntos de Gestión de residuos, etc… su ubicación no generará suciedad en la vía pública ni acopio de restos de construcción sin delimitar debidamente.

Obrek irauten duten bitartean eta behin obrak amaituta, eremua sakon garbituko da (ekortzailea, presiozko ur-mahuka, eta abar), obrak jasan dituzten gune publikoen, espaloien, bideen, eta garbiketa-ura jasotzen duten hustubideetako harea-ontzien lehengo garbitasun-maila berreskuratzeko.

Bien durante las obras como una vez se hayan terminado las obras se procederá a realizar una limpieza profunda (barredora, mangueo agua a presión...) al objeto de recuperar el grado de limpieza de las zonas públicas afectadas por las obras, aceras, viales,

Garbiketa hori egiteko eguna Udaleko Bilketa eta Garbiketa Sailari jakinaraziko zaio, posta elektronikoko helbide honetara idatziz edo telefono honetara deituz:

administrazioa.injinerotza@getxo.eus
administracion.ingenieria@getxo.eus

94.466.01.80

Azpiegitura eta Zerbitzu Arloari jakinarazi ondoren, garbiketa-zerbitzuaren adjudikazioduna den enpresarekin egin behar den garbiketa baino astebete lehenago, gutxienez, harremanetan jarri beharko da, enpresa horrekin garbiketa koordinatu eta ikuskatzeko, eta zona publikoetako garbiketaren eraginkortasuna egiaztatzeko. Harremanetarako telefonoa hau da: 94.464.43.80.

Eraikinaren diseinuak, EKTaren araberakoak, EKT HS2n gaikako bilketa eta etxeetako hiri hondakin solidoak biltzeko udal kudeaketa sistemetan botatzea erraztuko duten esparruen arabera xedatutakoa beteko du. Aipatutako etxebizitzetarako irtenbidea dagoeneko aipatu da.

BESTE ZERBITZU BATZUK

Beste zerbitzu batzuei dagokienez aurkeztutako planoak ontzat eman dira, baina udal Zerbitzu Teknikoek zonan hedatutako operadoreekin batera egiaztatuko dute egokiak direla eta ingurunean erabat integratzen direla; proiektatutako sareak erabat funtzionatzen dutela bermatzeko beharrezko aldaketa oro sustatzailearen konturakoak izango dira. Egingo diren kanalizazioen sekzio motak ez dira

así como los areneros de los sumideros donde se recoja el agua de la limpieza. La fecha de la citada limpieza se comunicará al Departamento de Recogida y Limpieza municipal en la siguiente dirección de correo electrónico ó teléfono:

administrazioa.injinerotza@getxo.eus
administracion.ingenieria@getxo.eus

94.466.01.80

Una vez se haya notificado al Área de Infraestructura y Servicios se deberá de contactar al menos, 1 semana antes de la fecha de la limpieza a llevar a cabo con la empresa adjudicataria del servicio de limpieza de cara a coordinar e inspeccionar con ella la citada limpieza y observar la efectividad de la limpieza de las zonas públicas. El teléfono de contacto es el: 94.464.43.80.

El diseño del edificio acorde con el CTE recogerá lo señalado en el CTE HS2 en lo relativo a recintos que faciliten la recogida selectiva y su depósito en los sistemas municipales de gestión de recogida de RSU de origen doméstico. Ya se menciona solución para las señaladas viviendas.

OTROS SERVICIOS

Los planos presentados en cuanto a otros servicios se dan por buenos si bien se verificará por parte de los Servicios Técnicos municipales conjuntamente con los operadores desplegados en la zona la idoneidad de los mismos y la completa integración en el entorno siendo por cuenta del promotor cualquier modificación que sea necesaria para garantizar la plena funcionalidad de las redes proyectadas.

aurkeztu, eta ibilbidea aldatu daiteke zerbitzuen arteko eraginaren arabera; horrenbestez, horien behin betiko kokapena obrak bertan egiaztatu beharko da, eta horren arabera finkatuko dira kaltetutako zoladura ordezteko irizpideak, bide sailak ezarritako baldintza orokorrekin bat etorriz.

No se aportan secciones tipo de las canalizaciones a realizar y el trazada puede variar conforme a las afecciones entre servicios por lo que deberá verificarse en obra la ubicación definitiva de los mismos en función de los cuales se establecerán los criterios de reposición del pavimento afectado conforme a las condiciones generales establecidas por el departamento de vialidad.

Bide publikoan aire bidezko linea elektrikoak jartzea ez da uzten; gainera, urbanizatu beharreko gunearen barnean geratutako lineak lurperatzea proiektatuko da; hala, udaleko teknikariek aurreikusitako trazatu eta sekzioei oniritzia emango diote.

No se permite el tendido de líneas aéreas en vía pública, debiendo además proyectar el soterramiento de aquellas líneas que existiendo queden dentro de la zona a urbanizar, de modo que los técnicos municipales den el visto bueno a los trazados y secciones previstas.

BIGARRENA.- Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 215. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, ondorengo epeak finkatzen dira.

- Obrak egikaritzeko aurreikusi den epea 18 hilabetekoa izango da, zuinketa akta sinatzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

SEGUNDO.- Teniendo en cuenta lo establecido en el Art. 215 de la Ley 2/ 2006, de 30 de Junio del Gobierno Vasco, sobre Suelo y Urbanismo, se establecen los siguientes plazos.

- El plazo previsto para la ejecución de las obras es de 18 meses a partir de la firma del Acta de replanteo.

- Obrak gehienez 3 hilabetean eten ahal izango dira, sustatzaileari bakarrik egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio.

- El periodo máximo en que puede estar interrumpida la ejecución de las obras por causa imputable al promotor será de 3 meses.

Epeak igaro eta obrak hasi edo amaitu ez direnean, edo sustatzaileari dagozkion arrazoiengatik etenda daudenean, eta luzapenik eman ez bada, udalak adieraziko du, administrazio-prozeduraren ostean eta interesdunaren entzunaldia eskainiz, lizentzia iraungi egin dela, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Transcurridos los plazos en los que la obra no se hubiese iniciado o no hubiese finalizado, o estuviera interrumpida por causa imputable al promotor, sin que se haya otorgado una prórroga, el ayuntamiento declarará, previo procedimiento administrativo con audiencia al interesado, la caducidad de la licencia, sin derecho a indemnización alguna.

HIRUGARRENA: Obrak amaitzean, lehen aldiz erabiltzeko lizentzia eskatuko du eta dokumentazio hau aurkeztuko du:

- Obra-amaierako ziurtagiria eta likidazioa teknikari eskudunek sinatuta eta dagokien profesionalen elkargoek ikus-onetsita,
- Eraikuntzaren argazkiak, koloretan eta ikuspegi guztietatik eginak.
- Buletin egokia, 401/03 Errege Dekretuaren 9. artikuluaren arabera, eta Telekomunikazioko Azpiegitura Erkideen Ziurtagiria (egoki bada), elkargo ofizial egokiak onetsita.
- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen eta -materialen kudeaketari buruzko amaierako txostena, 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan eta III. eranskinean adierazitako edukiarekin eta irismenarekin.
- Azken egoeraren plano topografiko digitalizatua, urbanizazioaren azken egoeraren elementu guztiak zehazten dituena, instalatutakoak edo aldatutakoak barne, udal-titulartasunekoak badira edo bere esku pasa behar badute: hiri-altzariak, lorezaintza, zoladura… Halaber, obraren amaierako planoak, ur, saneamendu, drainatze eta argien sareei buruzkoak, lurzoru publikotik badoaz edo bertan kokatzen badira, titulartasun publiko edo pribatukoak izan arren. Oinarritzat topografia-plano bera hartuko da.

Inola ere ezin dira etxebizitzak eta gainerako lokalak erabili, udalak lehen erabilerarako lizentzia eman arte. Betebehar hori bete ezean, eraikuntza lizentziaren titularra izango da erantzule.

LAUGARRENA: EAEko Lurraren eta

TERCERO: Al finalizar las obras solicitará licencia de primera utilización acompañada de la siguiente documentación:

- Liquidación y certificado final de las obras suscritos por los técnicos competentes y visados por los Colegios Profesionales correspondientes,
- Fotografías a color de la edificación desde todos los puntos de vista.
- De acuerdo con el R.D. 401/03, en su Artº 9º, el oportuno Boletín y en su caso certificados referentes a las Infraestructuras Comunes de Telecomunicación, visado por el Colegio Oficial correspondiente.
- Informe final de la gestión de residuos y materiales de construcción y demolición con el contenido y alcance que se señala en el art. 6 y en el anexo III del decreto112/2012.
- un plano topográfico digitalizado del estado final, en el que se detallarán todos los elementos del estado final de la urbanización, incluso los que han sido instalados o modificados y que sean, o vayan a pasar a ser, de titularidad municipal: mobiliario urbano, jardinería, pavimentación… así como los planos fin de obra de las redes de agua, saneamiento, drenaje y alumbrado que discurran por o se ubiquen en suelo público ya sean de titularidad privada o pública, que tendrán como base ese mismo plano topográfico..

En ningún caso se podrán utilizar las viviendas y demás locales, sin tener concedido el Ayuntamiento la licencia de primera utilización. Será responsable del incumplimiento de esta obligación el titular de la licencia de construcción.

CUARTO: Se hace constar

Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, berenberegi adierazten da baimenak eta lizentziak jabetza eskubidea salbu eta inor kaltetu gabe emango direla.

expresamente que de conformidad con el artículo 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las autorizaciones y licencias se entenderán otorgadas salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros

II. Erabaki hau nahiz haren aurka jar daitezkeen errekurtsoak eskatzaileari helaraziko zaizkio, ondorio egokiak izan ditzan.

II. Dar traslado del presente Acuerdo así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

III-. Ekonomia Arloak lizentzia honi dagozkion eskubideak igorriko ditu. Lan horiei lotuta aurkeztu den aurrekontua 627.500,00 eurokoa da.

III. Por el Área económica se girarán los derechos correspondientes a la presente licencia. El presupuesto presentado correspondiente a dichas obras asciende a la cantidad de 627.500,00 €.

Gai-zerrendaz kanpo, larrialdiko deklarazioa aurrez eginda, beraz, "quorum" zegoela erabakita, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 51. artikuluan aurreikusi bezala, ondorengo erabakiak sartu dira:

Fuera del Orden del Día, previa declaración de urgencia, y por lo tanto, con el "quorum" prevenido en el artículo 51 del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de abril, se acordó incluir los siguientes acuerdos:

**284.- INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA SEXOLOGIKOKO BULEGOA KUDEATZEKO ZERBITZUA ADJKUDIKATZEKO ESPEDIENTEA HASTEA, PLEGUAK ONESTEA ETA GASTUA BAIMENTZEA.**

**284.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE GESTIÓN DE LA OFICINA DE INFORMACIÓN Y ASESORÍA SEXOLÓGICA, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA SEXOLOGIKOKO BULEGOA KUDEATZEKO ZERBITZUA prozedura irekiaren bidez adjudikatzeko arauzko izapideak hasteko baimena ematea.

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto del SERVICIO DE GESTIÓN DE LA OFICINA DE INFORMACIÓN Y ASESORÍA SEXOLÓGICA.

Kontratua gauzatzeko epea 2 (bi)

El plazo de ejecución del contrato será

urtekoa izango da, kontratua sinatzen den unetik aurrera zenbatzen hasita, eta urtean 2 (bi) luzapen izan ahalko ditu.

de 2 (dos) años, a contar desde la fecha de la firma del mismo, con posibilidad de 2 (dos) prórrogas anuales.

Kontratuaren zenbatekoa 22.000 euro da, % 21eko BEZa barne (3.818,18 euro), kontratuak irauten duen bi urteetarako.

El importe del contrato asciende a 22.000 euros, 21% de I.V.A. incluido (3.818,18 euros), por los 2 años de duración del contrato.

BIGARRENA: Administrazioko kontratazioa arautu behar duten administrazio-klausula berezi eta teknikoen pleguak onetsiko dira.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

HIRUGARRENA: Aipatutako zerbitzua kontratatzeak dakartzan betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 22.000 eurotan (% 21eko BEZa barne) irauten duen 2 urteetarako, balizko luzapenak aintzat hartu GABE.

TERCERO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 22.000 euros, IVA del 21% incluido, por los 2 años de duración del mismo, SIN incluir las posibles prórrogas.

LAUGARRENA: Kontratuaren arduradun izendatuko da Begoña García Martínez, SPKLren 62. artikulutik eratorritako ondorio legaletarako.

CUARTO: Nombrar responsable del contrato a Begoña García Martínez, Técnica de Igualdad, a los efectos legales que se deriven del artículo 62 de la LCSP.

**285.- ESPEDIENTEA HASTEA, ZAINTZAILEENTZAKO BABES ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO, PLEGUAK ONESTEKO ETA GASTUA BAIMENTZEKO.**

**285.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE APOYO A PERSONAS CUIDADORAS, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: ZAINTZAILEENTZAKO BABES ZERBITZUA prozedura ireki bidez adjudikatzeko arauzko izapideei hasiera ematea baimentzea.

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, del SERVICIO DE APOYO A PERSONAS CUIDADORAS.

Kontratua gauzatzeko epea 2 (bi) urtekoa izango da, kontratua sinatzen

El plazo de ejecución del contrato será de 2 años, a contar desde la fecha de la

den unetik aurrera zenbatzen hasita, eta urtean 2 (bi) luzapen izan ahalko ditu.

firma del mismo, con posibilidad de otros 2 años más de prórroga anual.

Kontratuaren zenbatekoa 110.000 euro izango da (% 10eko BEZa barne) irauten duen bi urteetarako, balizko luzapenak aintzat hartu GABE.

El importe del contrato asciende a 110.000 euros, 10% de I.V.A. incluido, por los dos años de duración del contrato, SIN incluir las dos posibles prórrogas.

BIGARRENA: Administrazioko kontratazioa arautu behar duten administrazio-klausula berezi eta teknikoen pleguak onetsiko dira.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

HIRUGARRENA: Aipatutako zerbitzua kontratatzeak dakartzan betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimenduko da, 110.000 eurotan (% 10eko BEZa barne), balizko luzapenak aintzat hartu GABE.

TERCERO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 110.000 euros, 10% de I.V.A. incluido, por los 2 (DOS) años de duración del contrato, SIN incluir las posibles prórrogas.

LAUGARRENA: Catalina Rebolledo andrea izendatuko da kontratuaren arduradun gisa, SPKLren 62. artikulutik eratorritako legezko ondorioetarako.

CUARTO: Nombrar responsable del contrato a Dña. Catalina Rebolledo, a los efectos legales que se deriven del artículo 62 de la LCSP.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakariak bilkura egun bereko goizeko bederatziak eta hogeita hamar minutu direnean eman du bukatutzat. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Presidente levantó la sesión siendo las nueve horas y treinta minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.